



Merkatuaren segmentazioa

Zein da gure bezeroa? Gure bezeroak desgaitasunak edo behar bereziak dituzten haurrak dira, ikasteko edo jolasteko aukerak hobeagoak izan ditzaten. Gure baliabideak pertsona guztiei zuzenduta daude, euren premia bereziak eta espezifikoak asetzeko asmoz. Horretarako, gure web orria aniztasun funtzionala duten pertsonen dago zuzenduta; baina, zer da aniztasun funtzionala? Eta zer dira desgaitasunak?

- **Aniztasun funtzionala**

Pertsona baten hainbat rol edo funtzio bereziak betetzeko gaitasuna adierazten du. Adibidez, pertsona batek bere bizitzako arlo desberdinetan funtzionatzeko eta egokitze gaitasuna.

- **Desgaitasuna**

Pertsona batek bizi duen egoera edo baldintza bat deskribatzen du, non bere gaitasun fisikoak, mentalak, emozionalak edo sentsozialak mugatuta dauden, horrek bere eguneroko bizitza eta jarduerak egiteko zailtasunak sortuz.

- Funtzio fisikoen desgaitasuna
- Desgaitasun Kognitiboa
- Desgaitasun Sentsoziala
- Desgaitasun Psikikoa

- **Desgaitasun sentsoziala:**

- 1. Ikusmen arazoak:**

- Formak, koloreak edo xehetasunak hautemateko zailtasuna edo ezintasuna.
- Orientazio eta mugikortasun arazoak.
- Laguntza teknikoak menderatzeko zailtasuna (makila, braille-sistema, pantaila-irakurgailuak).

- Ikusmen nekea ikusmen urriko pertsonengan, jarduera luzeak egitean.
- Letra handiekin, kontraste handiarekin edo erliebearekin materialak egokitzeko beharra.
- Irisgarriak ez diren inguruneekin elkarreragiteko zailtasuna (seinale desegokiak edo ikusizko euskarrik eza).

2. Entzumen arazoak:

- Inguruneko soinuak edo hizketa hautemateko zailtasuna.
- Ahozko komunikazio arazoak (batez ere entzumen galera sakona duten pertsonengan).
- Laguntza teknologikoekiko (audifonoak, kokleako inplanteak) edo keinu hizkuntzarekiko mendekotasuna.
- Zailtasuna ingurune zaratatsuetan edo akustika txarra dutenean.
- Ikusizko materialen beharra (azpтитuluak, keinu hizkuntzako interpreteak, argi abisuak).
- Ahozko hizkuntzaren garapenean izan daitezkeen zailtasunak, bereziki galera sortzetikoa bada edo haurtzaroan gertatzen bada.

3. Komunikatzeko arazoak

- Esaldi laburrak erabiltzen dute: zailtasunak dituzte hitz batzuk esateko, esaldi luzeagoak osatzeko, etab...
- Hizkuntza ulertzeko zailtasunak: ahozko mezuen esanahia interpretatzeko arazoak.
- Disfasia: haur batek hizkuntza ulertu edo erabiltzeko duen zailtasun larria eta iraunkorra da, beste arloak (adimena, entzumen fisikoa...) ondo daudenean.
- Ahozkeraren arazoak: soinuak behar bezala artikulatzeko zailtasuna.
- Seinale ez-berbalei lotutako arazoak: keinuak, adierazpen aurpegiak edo gorputz-hizkuntza gutxi erabiltzea...
- Gizarte eta elkarrekintza arazoak: besteekin jolasteko edo elkarekintzak hasteko zailtasuna, elkarrizketan parte hartzeko edo txandaka hitz egiteko zailtasunak.